



6-BEZEROEKKIN ERLAZIOAK

6.1 Bezeroekin harreman hurbila

Gure bezeroekin harreman hurbila izatea nahi dugu. Beti saiatuko gara haien galderak erantzuten, aholkuak ematen eta haien proposamenak entzuten. Animaliak maite ditugunez, gure bezeroekin harreman estua izango dugu eta haien kezkak ulertuko ditugu.

Horrela, konfiantza izango dute guregan, eta beti gurekin kontaktuan egon nahi izango dute. Harreman hori mantentzeko, telefonoa, Gmail eta gure webgunea erabiliko ditugu.

6.2 Pozik egoteko konpromisoa

Gure helburua da animaliak eta haien jabeak pozik egotea. Horretarako, bezeroekin etengabe komunikatuko gara.

Horrez gain, gure sare sozialetan informazio guztia eskuragarri egongo da, eta bezeroek gurekin kontaktuan jartzeko aukera izango dute modu azkar eta errazean.

6.3 Gure irudia eta produktua

Bezeroek kanpotik gure enpresa berritzailea eta originala bezala ikusiko dute. Gure produktua bisuala eta erabiltzeko erraza da, eta horrek arreta erakartzen du. Lepokoak animaliaaren pultsazioak eta mugimenduak neurtzen ditu, eta kolorearen bidez bere emozioa berehala ikus daiteke modu bisual eta sinplean. Gainera, aplikazio baten bidez kontrolatu daiteke, eta horrek produktua oso praktikoa eta kalitatezkoa egiten du.

Bezeroek enpresa teknologia berritzaileekin lotuko dute, eta animaliak maite dituen eta haien ongizateaz arduratzen den enpresa bezala ikusiko gaituzte.

6.4 Bezeroen pertzepzioa eta gure balioak

Bezeroek esango lukete gure enpresa originala dela eta animaliak maite dituela. Beti prest egongo gara laguntzeko, galderak erantzuteko eta aholkuak emateko. Produktuak maitasunez egiten ditugu, eta bezeroek hori nabarmen ikusiko dute. Era berean, argi geratuko da animaliaaren ongizatea guretzat oso garrantzitsua dela, eta balio hori bezeroekin partekatzen dugula.



Nahi dugu gure bezeroek enpresa fidagarria, berritzailea eta originala ikustea. Gure produktuak ez dira bakarrik teknologia berriak erabiltzeko; baita animalien eta haien jabeen arteko harreman ona sustatzeko ere.

Azkenik, bezeroekin harreman ona izateak abantaila handiak emango dizkigu: gomendio gehiago, bezero leialagoak eta enpresaren irudi hobea.